








## 1. ELKARTEAREN HELBURUA

Helburua bakarra da, aniztasun funtzionala duten pertsonen INKLUSIOA (bai, letra larrietan). Inklusioa ez bakarrik eskolan, baita kirola, kultura eta aisi aldiak ere. Gure bailarako aniztasun funtzionala duten pertsonak herrian sortzen diren aktibitate eta dinamika ezberdinetan leku bat izan dezaten egingo dugu lan, horretarako herriko agente eragile ezberdinei (udal, kirol elkarte, musika eskola, edozein ekimen...) inklusioaren “betaurrekoak” jartzen saiatuko gara.

lax Marea Urdinera “zertan lagundu dezaket?” galdera eginez gerturatzen zirenei “zer dakizu egiten?” galderarekin erantzuten genion. Hemendik aurrera gugana gerturatzen den orori “eta zuk/ek zer egin dezakezu/e inklusioaren alde?” galdetuko diogu.

Herrian sortzen den edozein egitasmo, ekintza, kirol, kurtso, jardunaldik... inklusioaren ikuspegia landua izatea nahiko genuke eta gure indarrak hor ipiniko ditugu.

Bestalde, badakigu batzuetan aniztasun funtzionala duten



pertsonen beharren arabera ezingo dugula edozein aktibitate edo ekintzetan parte hartu, kasu hauetan Marea Urdina Elkarteak egokitutako iharduerak antolatzen saiatuko da.

Azkenik eta ez garrantzi gutxiago duelako, sentsibilizazio eta kontzientziazio ekimenak bultzatuko ditugu gure bailaran. Iazko Marea Urdinetik zerbait ikasi bagenuen sentsibilizazioa zela gizarte inklusibo bat eraikitzeko zimentu edo oinarria izan zen.





---

## 2. GENERO ERAGINARI BURUZKO INFORMAZIOA

Marea Urdina Elkartearen helburua inklusioa da, aniztasun funtzionala duten pertsona ororen inklusioa, neska, mutil edo generorik gabea izan.

Generoaren ikuspegiaren gainera dago gure begirada, gure bailaran bizi den pertsona guztiak gizartearen parte izateko eskubidea izateko egiten dugu lana, hezkuntza, kirolean, aisialdian eta kulturean.

Datu batzuk ematearren:

- Gure talde eragilean 4 emakumezko eta 3 gizonezko osatzen dugu.
- Elkarteren bazkideetatik 13 neska eta 12 mutilak dira.
- Antolatzen ditugun egitasmo eta sentsibilizazio ekintza guztietan neska eta mutilek era berdintsuan parte hartzen dute (ikus grabatuta ditugun bideoak edo irudiak).

Horregaitik gure leloa “Denok gara Marea Urdina” izan ohi da.



---

### 3. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK

Marea Urdineko kideak 2022 urtean parte hartu duten jarduera INKLUSIBO, EGOKITUTAKO ekimen eta egin diren KONTZIENTZIAZIO ihardueren berri emango dugu hemen.

Zein helbururi egiten dion erreferentzia goiburuaren kolorearekin adieraziko dugu.

Jarduera arrunta

Egokitutako jarduera

Kontzientziazio jarduera

Informazio guzti hau ondorengo lekuetan aurkitu dezakezue:

**Web orrian:** <https://www.mareaurdina.org/>

**Facebook:** <https://www.facebook.com/mareaurdina2018>

**Twitter:** <https://twitter.com/mareaurdina>

**Instagram:** <https://www.instagram.com/mareaurdina/>

**Blogger:** <https://mareaurdina.blogspot.com/>

**Youtube:** <https://www.youtube.com/mareaurdina>



## EGUTEGIA 2022

Egutegi bat behar duzu inprimatzeko? Erabili ezazu Marea Urdinekoa! Sartu gure web orrian, jaitsi eta inprimatu ezazu. Jaitsi, kopiatu, zabaldu, erabili guztiona eta guztiontzat da. Izan zu ere URDIN!

The screenshot shows the website's header with the word cloud logo and navigation links: HASIERA, ZIURTAGIRIA, JARDUERAK, NEUREK GATEZ?, BARRILEAK, HARRI MANE TARAKO. The main content area is titled "MAREA URDINA EGUTEGIA" and features a section for "2022. urtea... ametsak egi bihurtuko diren urteak". It includes a graphic for "2022" with a person's face, a photo of people holding a large banner, and a text box with the heading "Ametsak egi bihurtuko diren urteak". At the bottom, there is a URL: [mareaurdina.org/egutegia](http://mareaurdina.org/egutegia).



**MAREA URDINEKO URTEKO BATZARRA ETA ZIURTAGIRIEN BANAKETA.**









Marea Urdina Elkartea

**AZPEITIAN FUTBOL EGOKITUA.**

Azpeitian futbol egokituko topaketa egin zen otsailaren 20an. Topaketa honetan Marea Urdinak kolaboratu du.

**FUTBOL Azpeitia EGOKITUKO TOPAKETA**  
ENCUESTRO DE FÚTBOL ADAPTADO

**DESGAITASUNA DUTEN HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUTA**  
DIRIGIDO A NIÑAS, NIÑOS Y JÓVENES CON DISCAPACIDAD

2022ko otsailak 20a  
20 de febrero de 2022

12:00

Garmendipe futbol zelaia  
Campo de fútbol Garmendipe

IZEN-EMATEA / APUNTARSE EN  
fgf@escuelaentrenadores.com  
Telf: 747 426 823 (Josu)

A PARTIR DE 8 AÑOS  
EGOKITUKO AURDURA

BABELE NAUGUSIA PATROCINADOR OFICIAL  
DOMUSA TEKNIK

CELESTIA  
GEEF 1-0172  
DEPARTAMENTU BERRIKAK  
MILAR LARRENDEI  
ikerlan  
mondragonLingua









#mareaurdina

Proiektu berri batekin gatoz: Imanol Alesonek Urolako Itzulia egingo du lehenengo aldiz jarraian 24 ordu azpitik Marea Urdinaren alde. Animatzen zara berarekin zati bat egitera edo irteera/ bukaera animatzera? Begiratu ordutegiak urolakoitzulia.org web orrian.

- Irteera Martxoak 10 19:00tan Balda Plazan
  - Bukaera Martxoak 11 19:00tan Balda Plazan
- Denok gara URDIN!



**HITZALDIA: DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ONDARE BABESTUA.**





#mareaurdina

# HITZALDIA

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN  
ALDEKO ONDARE BABESTUA

**MAREA URDINA**-ren eskutik

2 **Eguna: Martxoak 30 ASTEAZKENA**

3 **Ordua: 19:00-tan**

4 **Lekua: Oteiza Aretoa, Elkargunea (AZKOITIA)**

5 **Gaia: "ONDARE BABESTUA"**

8 **Zer da? Nor izan daiteke onuradun? Nola osatzen da? Zer sar daiteke bertan? Zer abantaila juridiko eta fiskal ditu ondasun arruntekiko? Nor izan daiteke administratzaile? Zein betebeharrak ditu administratzaileak? Noiz desagertzen da? Etab.**

9 **Hizlaria: Teresa Lierni Fernández**

Teresa Lierni Fernández Caballero, zuzenbidean lizentziatua eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko kidea. Zuzenbide zibil, familia eta oinordetza zuzenbidean eta pertsonen aurkako delituetan espezialista. Izapide Prozesal eta Administratiboko irakaslea.



**Oharra: Hitzaldia gazteleraz izango da / La conferencia será en castellano**







#mareaurdina

## AUTISMOAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Apirilak 2 Autismoaren Nazioarteko Eguna da, gure magiarekin eguna urdinduko dugu eta zuk? Animatu eta urdindu ezazu eguna! Zerbait URDINA soinean jantzi eta bidali iezaguzu argazkia edo zerbait originalarekin sorprenditu gaitzazu. Apirilak 2an #URDINDUEGUNA!







## AZKOITIKO DUATLOIA.

Akoitiko Triatloi Klubak inklusioari atek ireki zizkion alderik alde Azkoitiko Duatloian. Aniztasun funtzionala duten umeeek parte hartu zuten goizean zehar izan ziren proba ezberdinetan eta ordubetez plazan Marea Urdinaren eskutik sensibilizazio jolasak izan ziren.









#mareaurdina

## HITZALDIA

Nahiz eta aniztasun funtzional bat izan kirolean garaipenak lortu daitezke.

MAREA URDINA-ren eskutik



### ANOAGUNE URDINA (DOMUSA TEKNIK 40MLK)

Domusa Teknik 40mlk lasterketako anoa gune garrantzitsuena inklusioare anoa gunea izan zen, anoa gune Urdina.

Zatoz  
**Anoa-Gune urdina**!

**maiatzak 14**  
11:00etatik 18:30etara

Anoa-Gune urdina (ikasberriko aparkalekua)

**Aktibitateak:**

11:00-18:30	ATRACCIONES SANZ-en PUZGARRIAK	ATRACCIONES SANZ
12:00	OLATU URDIN ERRALDOIA "700 niki URDIN ditugu oparitzeko"	
12:30	LEHEN KORRIKALARIARI ONGI ETORRIA	
11:00-14:00	SENSIBILIZAZIO JOLASAK Egeña Gozotegiak egindako Marea Urdina-ren piruleta opari	
12:00-16:00	EUSKO LABEL-en ESKUTIK PINTXO ETA EDARIAK	
16:30	#40MLK2 Eronkaren SARI BANAKETA	
18:30	AZKEN KORRIKALARIARI ONGI ETORRIA	







#mareaurdina



## IKAS KIROL KROSA.

Ikas kirol krossa denontzatko kirol festa izan zen, ezberdintasunetik denok korrika berdinegin genuen, inklusioaren krossa izan zen.









#mareaurdina

Zubiaurre Igeri Elkarteak Azkoitiko elkarguneko igerilekuan San Andres saria antolatu zuen. Ekintza inklusiboa izanda Marea Urdineko kideek ere parte hartu zuten.



**KOTXE KLASIKOAK:**







#mareaurdina

BARRAKA URDINAK AZPEITIA ETA AZKOITIAN.

## #barrakaurdinak



**Saninazicetan**  
**MUSIKARIK GABEKO ORDUTEGIA:**

Uztailak 22, 23, 24  
17:00-20:00

Uztailak 25 eta 30  
12:00-14:00  
17:00-19:00

Uztailak 31  
17:00-19:00

Abuztuak 1  
12:00-14:00  
17:00-19:00



## #barrakaurdinak



**Andremarietan**  
**MUSIKARIK GABEKO ORDUTEGIA:**

14an hasi eta  
18ra bitartean:  
18:00-19:00

Lehentasun txartela erabilgarri!





**KAMISETA ETA BISERAK SALTZEN.**











---

**ESKOLA KIROL EGOKITUAREN ESKAINTZA.**





#mareaurdina



Azkoitia, irailak 14

Martxan da Eskola Kirol Egokituaren bigarren edizioa

**EKE** ESKOLA  
KIROLA  
EGOKITUA

URDINDUZ 2023.



---

2023ko Airilak 2an Azpeitian izango da Urdinduz festa eta Marea Urdina hasi da Gautenarekin batera elkarlanean.





## LASTERKETA SOLIDARIOA INKLUSIBOA.

Lasterketa Solidario Inklusiboa parte hartzez gain sentsibilizazio jolasak antolatu genituen.

Ttipi-Ttapak antolatutako IV Azkoitiko Lasterketa Solidario Inklusiboan parte hartu genuen sentsibilizazio jolasak antolatuz.

Haur hauek etorkizuneko gizartea osatuko dute, beraiek dira inklusioaren hazia.

Zoragarri pasa genuen! Gora zuek! Zuek ere URDIN!













## BIZIPOZA ELKARTEAREN 6. JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA.

Larunbat honetan Marea Urdinako kideak Bizipoza Elkartearen 6. Jardunaldian izan ginen. Bertan, **MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE, BAINA EZ DA** liburuaren aurkezpenean eta ondoren **ZAINTZA SISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOAZ: ELKARREKIN HAUSNARTZEN, PARTEKATZEN ETA ERALDATZEN** mahai inguru eta tertulian parte hartu genuen. Guztiontzako bizipozez beteriko mundu batean sinesten dugulako, elkar zaintzen dugun mundu bat!







## DOMUSA TEKNIKEKO ENTRENAMENDUAN PARTE HARTZEA.

Zoragarria atzo Sara Alonsorekin egin genuen entrenamendua. Mila esker Domusa Teknik 40 MLK Marea Urdinari emandako babesagatik. Sara Alonso ere Marea Urdina da!









#mareaurdina

# PUZGARRI

## INKLUSIBOAK



Eguna: Abenduak 10 LARUNBATA

Ordua: 11:30tatik 14:00ra

10:30tatik 11:30ra **SENISORIALKI**  
behar bereziak dituzten umeentzat



Lekua: Herriko Plazan (AZPEITIA)

LEHENENGO PUZGARRI INKLUSIBOAK



ATRACCIONES

**SANZ** -en ESKUTIK

**DOHAINIK**

OHARRA:

Aniztasun funtzionala duten pertsonak behar izan ezker  
lehenetasuna izango dute "lehenetasun txartela" erakutsiz.



ATRACCIONES

**SANZ**

**Azpeitia**  
Denontzat

**ANGELMAN SINDROMEAREN IKERKETARAKO LAGUNTZA.**

Abenduaren 28an 11:00tatik 13:30tara Azkoitiko Plazan izango gara mugikor edo tablet zaharrak jasotzen Angelman Sindromearen ikerketara dirua bideratzeko. Bihurtu ezazu zure mugiko zaharra besteen irribarre!



#mareaurdina

Mugikor zaharra, bihurtu irribarre!



=



Ekarri zure mugikor edo tablet zaharra, Angelman Sindromearen ikerketara dirua bideratzeko.



Informazio gehiago:  
[www.angelman-asa.org](http://www.angelman-asa.org)



AZPEITIKO SAN SILBESTRE LASTERKETAN PARTE HARTUZZEA.









Marea Urdinak eginiko publikazio honek “Creative Commons Reconocimiento-SinObraDerivada 3.0 Unported” lizentzia du